



**Emakumeen eta Gizonen  
Berdintasuna lortzeko eta  
emakumeen kontrako indarkeria  
matxistarik gabe bizitzeko Legea**



## EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA LORTZEKO ETA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA MATXISTARIK GABE BIZITZEKO LEGEA

*Joan den martxoan indarrean jarri zen lege berriak zenbait berrikuntza dakartza. Besteak beste, emakumeen aurkako indarkeria borrokatzeko neurri instituzionalak sendotzen ditu; euskal erakunde publikoetako langile guztien trebakuntza derrigorrezkoa, mailaz mailakoa eta etengabea ezartzen du; eta unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan hezkidetzar-duradunaren derrigorrezko figura sortzen du.*

Eusko Legebiltzarrak joan den martxoan onartu zuen Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legea. Lege berria jendaurrean aurkeztu zenean Izaskun Landaida Emakunderen zuzendariak adierazi zuenez, “arau hau Istanbulgo Hitzarmenera, NBE-ren 2030 Agendara, Indarkeriaren aurkako Estatu Itunera eta Adingabeen Legean biktimek duten estatutuari buruzko Estatuko legedi berrira egokitzea” izan da erronkarik handiena.

Erreforma bi urteko partaidetzaren eta negoziazioaren emaitza izan da, eta 400 ekarpen inguru eta 200 zuzenketa baino gehiago jaso ditu. 2005eko Berdintasun Legea aldatzen du, izenetik beretik hasita. Aurrerantz, Emakumeen eta Gizonen Berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legea izango da. Hala, “argi uzten du arazoa ez dela indarkeriaz jokatzaren duten gizon jakin batzuen; aitzitik, egiturazko arazo sistemikoa da, eta horren sorburua matxismoa da, bizitzaren arlo guztiei

eragiten diena. Matxismoa eta indarkeria matxista amaitzeko, berdintasuna ezarri behar da edozein gizarte demokratikoren baliio eta helburu orokor gisa”, azpimarratu du Ander Bergarak, Emakunderen Lankidetzaren Institutuzionalaren Arloko arduradunak.

### Finantziarioa eta langile publikoak

Lege berriaren aurkezpenean, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburu Beatriz Artolazabalek azaldu zuen aldaketak “berdintasun-politikak garatzeko baliabide ekonomiko, humano eta teknikoak sendotzea” ekarriko duela. Lehenik eta behin, esan beharra dago “ez direla han-hemenkako aldaketak, ia artikuluko guztiak moldatu diren erreforma oso bat baizik”, zehaztu zuen Bergarak.

Legearen berrikuntzarik garrantzitsuetako bat da aurrekontuaren %1 berdintasuna sustatzera bideratzeko helburua ezartzen duela, eta 2030erako portzentaje hori %1,5eraino igotzea aurreikusten duela. Gaur egun, legearen memoria ekonomikoaren arabera, “berdintasun-politike-tarako gastua % 0,1 eta % 0,4 bitartekoa da”. Halaber, neurriak ezartzen dira sektore publikoan berdintasun-politikek aurrera egin dezaten funtsezkoak izango diren elementuak ezartzeko. “Planak, aurrekontua eta langile espezializatuak dituzten egiturak; prestakuntza, eta erabaki-esparruetan emakume eta gizonen ordezkaritza orekatua... Horiek dira berdintasun-politika eraginkorrak eta iraunkorrak garatzeko behar diren oinarriak”, azpimarratu du Bergarak.

Izan ere, administrazioek beren politika guztietara eraman beharko dute genero-ikuspegia. “Irizpide berritzaileenetako bat euskal erakunde publiko guztietako langileentzat prestakuntza derrigorrezkoa, mailaz mailakoa eta etengabea ezartzea da”, dio Bergarak. Ordezkaritza orekatuaren printzipioa aplikatuko da epaimahaiak, hautaketa-tribunalak eta bestelako administrazio-organoak izendatzean, baita kargu publikoak eta sozietate publikoetako administrazio-kontseiluetaiko kideak izendatzean ere.

### Hezkuntza

Genero-ikuspegia hezkuntza-sisteman sartzeari garrantzi handia ematen dio lege berriak. Alde batetik, unibertsitateaz kanpoko ikastetxeek hezkidetzar-duradunak izan beharko dituzte, eta horiei planak idaztea egokituko zaie. “Hala, 2013an lehen hezkidetzar-plana onartu zenetik garatuz joan den lan-ildoan sendotzen du legeak”, gogorarazi du Bergarak.

Unibertsitate-hezkuntzari dagokionez, lege-erreformak dio “genero-ikuspegia gehitu beharko dela diziplina guztietan, hezkidetzari buruzko eduki espezifikoak eman beharko zaizkiela hezkuntza ez-unibertsitarioko irakasle-ikasketak egiten ari direnei, eta berdintasunari eta indarkeria matxistari buruzko edukiak eman beharko direla biktimentzako arretarekin lotura duten karrera guztietan, baita hedabideetako profesionaleri ere”.

## ZABALEAN

### AMPLIANDO

Gainera, legean aurreikusita dago haurrak eta nerabeak indarkeria matxistatik babesteko hobekuntzak sustatzea, baita detekzio goiztiarreko sistemetan ere, "hezkuntzako, osasungintzako, polizia, epaitegietako eta lan- eta gizarte-arloetako profesionalentzako protokolo gaurkotuen bitartez". Era berean, indarkeria matxistari buruzko ikerketa areagotuko da, eta erregistroa eta datuen zabalkundea hobetuko da. Eta, halaber, Berdintasunaren Behatoki bat sortzea planteatzen da, "Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen berdintasunak duen egoeraren eta bilakabidearen ikuspegi global eta iraunkorra edukitzeko", azaldu du Bergarak.

### Indarkeria matxista

Indarkeria matxistari buruzko kapitulua guztiz eraldatu da, lotura ezartzeko berdintasunik ezaren eta indarkeriaren artean. Berresten da "emakumeen aurkako indarkeria matxistaren erroa emakumeen eta gizonen arteko berdintasunik eza" delako ideia; eta indarkeria hori prebenitzeko bidea "berdintasunaren alde egitea eta berdintasun-politiketarako baliabide ekonomiko eta materialak eta giza baliabideak bideratzea da", nabarmendu du Bergarak. Legeak planteatzen dituen aldatetako batek indarkeria matxistaren biktimei ematen zaien arretarekin du zerikusia. "Lehen, emakumeen aurkako indarkeriaz hitz egiten zen, modu zabalean, eta horrek denak hartzen zituen, baina arreta tratatu txarren eta sexu-erasoen biktimentzat zen batez ere", dio Bergarak. Orain, erakundeen erantzuna indarkeria matxistaren edozein adierazpenetara zabalduko da. Testua barne hartzen ditu bikotearen barruko indarkeria eta bikotekide ohiarena,



familia barrukoa, sexu-indarkeria, feminizidioa, emakumeen eta neskatuen salerosketa, sexu-esplotazioa, emakumeen genitalen mutilazioa, behartutako ezkontzak, derrigortzea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, tortura, jazarpena eta genero-indarkeria politikoa. "Hartara, gure legea aurreratuenetako bat da arlo honetan", azpimarratu du Bergarak.

Emakumeak ez ezik, lege berriak biktimentzat hartzen ditu haurrak, nerabeak eta mendeko beste pertsona batzuk ere, indarkeria matxista dagoen inguru batean badaude. Izan ere, baliabide espezifikoekin bitartez babesten ditu haurrak eta nerabeak. Esaterako, umezurtzentzako berariazko laguntza baten bitartez. Legeak berme zientifikorik gabeko teoriak baztertzeko eskatzen du, eta bereziki aipatzen du gu-

rasoen alienazio sindromea (GAS). Bestalde, salaketaren zentraltasuna alboratzen da: orain arte, salaketa beharrezkoa izan da babes-neurriak eta bestelako baliabide batzuk ezartzeko, baina hemendik aurrera salaketarik gabe ere aktibatuko dira.

Azkenik, esan beharra dago biktimentzako ordainaren gaia jorratu dela, eta zenbait neurri planteatu direla, jasandako kaltearen konponketa bermatzeko xedez. "Konponketaren gaia gehitzea aurrerapauso handietako bat izan da. Legea aitzindaria da, ezartzen baitu Eusko Jaurlaritzak laguntzak edo bestelako neurri ekonomikoak eman beharko dituela, judizialki ezarritako kalte-ordaina kobratzen ez duten biktimentzat. Laguntza horien zenbatekoak eta eskuratzeko baldintzak arau bidez ezarri beharko dira", esan du Bergarak.

## Interesgarria / De Interés

### WEBGUNEA



### HEZKIDETZA GUNEA

II Hezkidetzeta Planaren baitan sortutako materialak jasotzen dituen Hezkuntza Saileko web orria da. Bertan, II Hezkidetzeta planaz gain, ikastetxe eta ikasgelarako materialak, bibliografia, web ezberdinak, lankidetzarako erakundeak eta praktika onak aurkitu daitezke.

[Hezkidetzagunea](#)

### LIBURUA



### TU CUERPO MOLA, APRENDE A DESCUBRIRLO

Un libro escrito por Marta y Cristina Torrón. Recomendado a partir de 12 años. Tu cuerpo es algo que te acompaña toda la vida y, a veces nos olvidamos de él. Seguro que hay partes que conoces bien y otras que tal vez no has mirado mucho, como la vulva. Con el tiempo, tu cuerpo vivirá muchos cambios y es importante que los conozcas para crecer con confianza y bienestar. [VER](#)

### LIBURUA



### LA REGLA MOLA, SI SABES CÓMO FUNCIONA

Un libro escrito por Anna Salvia y Cristina Torrón. Recomendado a partir de 8 años. Todo lo que siempre has querido saber sobre la menstruación (y nunca te has atrevido a preguntar) explicado de forma directa y divertida para vivir estos cambios con confianza y bienestar. Porque tener la regla mola, pero hay que saber cómo funciona. [VER](#)

## Berdintasunaren aldeko Emakunde Saria, genero-ikuspegidun kazetaritzarako

Beatriz Artolazabal Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak eta Izaskun Landaida Emakundeko zuzendariak berdintasunaren aldeko Emakunde Saria eman zieten Pikara aldizkariari, Berria egunkariari eta Lucía Martínez Odrizola EHUko Informazio Zientzien Fakultateko kazetari eta irakasleari (hil ondoren), genero-ikuspegia duen eta berdintasunarekin konprometituta dagoen komunikazio eta kazetaritzaren alde egindako ekarpenagatik.

Bilboko Euskalduna Jauregian ospatu zen ekitaldian, Berdintasunerako sailburuak gogora ekarri zuen komunikabideek balioak aldatzeko duten ahalmena, eta kazetaritzan genero-ikuspegiak duen garrantzia nabarmendu zuen, "mundua bere konplexutasun, aniztasun eta sakontasun osoan ulertzeko". Genero-ikuspegia, Artolazabalen ustez, "bereziki beharrezkoa da, errealitatea sinplifikatu nahi duten berdintasunaren aurkako diskurtsoak agertzen diren



garai honetan". Diskurtso hauek "aurrera pausoen erreakzio" direla esan zuen eta talka egiten dutela "berdintasunaren alde gero eta sentsibilizatuago dagoen euskal herritarrekin".

## Lehendakariak euskal gizarte osoari eskatu dio bat egiteko Berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzaren aldeko herri itunarekin



Emakundek Euskadiko errealitatera egokitu duen NBE Emakumeen "Generation equality" ekimen globalaren esparruan egindako lan-prozesu baten emaitza da Ituna. Ekimen horretan, herrialdeko ehun bat eragile sozial, politiko eta ekonomikok hartu dute parte. Eragile horiek prozesuan hartutako konpromisoetatik, berdintasunaren aurrerapena bizkortzea helburu duen itun bat sortu da, eta honako eremu hauekin lotutako hamar konpromiso ditu: Justizia ekonomikoa, Emakumeen eta neskatuen ahalduntzea, Emakumeen aurkako indarkeria matxista, Haurtzaroa eta nerabearoa, Zaintza, Gizonen inplikazioa, Trantsizio ekologikoa, Eraldaketa digitala, Emakumeen mugimenduak eta lidergo feministak eta Gobernu ona.

[INFORMAZIO GEHIAGO](#)

## BA AL ZENEKIEN?

### Nekane Balluerka psikologoarentzat 2021eko Euskadi Ikerkuntza Saria

- 2021eko Euskadi Ikerkuntza Saria UPV/EHUko Psikologia Klinikoa eta Osasunaren Psikologia eta Ikerketa Metodologia Saileko katedradun Nekane Balluerka psikologoak jaso du, epaimahaiaren erabakiz. Gizarte Zientzien eta Humanitateen arloan entzute handiko lau ikerlarik osatutako epaimahaiak aho batez onartu du, sariaren 25. edizio honetan, Balluerka psikologoaren aldeko ebazpena.

# ANDER BERGARA

## EMAKUNDEREN LANKIDETZA INSTITUZIO- NALAREN ARLOKO ARDURADUNA



Ander Bergara Sautua zuzenbidean lizentziatua da, eta 27 urte daramatza Emakunden (Emakumearen Euskal Erakundean) lanean. Emakumeen eskubideak defendatzen jardun du bere bizitza profesional ia osoan. Ibilbide oparoa egin du orain arte: aholkulari juridikoa, berdintasun-teknikaria, Zuzendarriaren aholkularia, eta, gaur egun, Lankidetzaren Institutuzionalaren Arloko arduraduna. Badu eskarmenturik, beraz, berdintasun-gaietan; besteak beste, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako euskal legea koordinatu eta idatzi du, baita berriki onartu den haren azken erreforma ere.

### Zer ekarriko du legearen egokitzapen honek, aurreko bertsioarekin alderatuta?

Egin den azken aldaketa ez da itxuraldatze hutsa. Aitzitik, artikulua gehienei eragiten dien erreforma oso bat da. Lege-aldaketa honi esker, Euskadi berdintasun-politikei buruzko lege-gintzaren abangoardian egongo da; baita emakumeen aurkako indarkeria matxistari erakundeek ematen dioten erantzunari dagokionez ere. Erreformaren xedea politika horietara bideratutako baliabide ekonomiko, humano eta teknikoak indartzea da. Era berean, testuinguru juridiko-arau-gile eta sozial berriak sortutako beharrei egokitu behar zaizkie politikak, azken urteetan aldaketa handiak izan dira eta.

### Zer aldaketak eragingo diete gehien ikastetxei?

Legeak ideia argi bat du abiapuntu: hezkuntzaren alorrean ezin dira berdintasun-politika egonkorrak eta eraginkorrek garatu, ez badago horien garapenez arduratu eta horiek sustatuko di-

tuzten ondo prestatutako pertsona eta egiturarik. Horregatik, horiek legez existitzea erabaki da; batetik, berariaz ezartzen da hezkuntza-administrazioak hezkidetzaren planak landu eta beteaz behar dituela. Horretarako, legeak ikastetxe guztiak behar izango dituzte irakasle batzuk hezkidetzaren arduradunak izatera, behar bezalako trebakuntza dutenak. Halaber, berdintasun-batzordeak eduki beharko dituzte, eta horiek udalez udaleko berdintasun-zerbitzuekin koordinatu beharko dute. Era berean, ikastetxe horietako ordezkariak goreneko organoetan eta eskola-kontseiluetan prestakuntza egokia duten berdintasun-ordezkariak egotea aurreratu behar da, udal-mailan zein autonomia-erkidegoarenean.

### Indarkeria matxista detektatzeko protokolo berririk aurreratu da?

Legeak dioenez, ziurtatu behar da hezkuntzako, osasungintzako, polizia, epaitegietako, lan-arloko eta gizarte-arloko profesionalek modu proaktiboan eta koordinatuta jardungo dutela, emakumeen aurkako indarkeria matxistaren esplizitatu gabeko kasuak atzeman eta behar bezala bideratzeko. Eta, helburu hori betetzeko, protokoloak daude eta aplikatzen direla bermatu beharra dago. Protokolo horiek tartean dauden erakundeek sortu behar dituzte, elkarrekin koordinatuta, eta dagozkien adierazle eta jarduerak eduki behar dituzte. Une honetan, Emakunde prozesu bat gidatzen ari da, Erakunde arteko III. akordioa sortzeko, indarkeria matxistaren biktimentzako arretarekin zerikusia duten erakunde guztiak barne hartuta, baita Hezkuntza Saila ere. Prozesu hori baliagarria izango da arreta- eta detekzio-protokoloak eguneratzeko, hobetzeko eta koordinatzeko;

baita hezkuntzako profesionalei eragiten dietenak ere.

### Bada berrikuntzarik hezkuntza-arloan indarkeriazko jarre- rak prebenitzeari dagokionez?

Hezkuntza-administrazioak oinarritzako printzipiotzat hartu beharko du indarkeriazko jarreraren prebentzioa, adingabeen aurkako sexu-abusuak barne. Era berean, ikasgai edo edukiak, eta denboratarate espezifikoak finkatu beharko ditu, hezkuntzaren maila guztietan, jarrera matxistak prebenitzeko –baita gutxien ikusten direnak ere–, eta gatazkak konpontzeko indarkeriarik gabeko metodoak eta bizikidetzaren ereduak irakasteko, sexuen arteko berdintasunarenganako eta dibertsitatearenganako errespetuan oinarrituta.

### Legearen erreformak al- daketak planteatzen ditu tre- bakuntzaren alorrean?

Aitzindaria da gauza batean: euskal erakunde publikoetako langile guztien trebakuntza ezartzen du, derrigorrezkoa, mailaz mailakoa eta etengabea. Hala, bermatu nahi da ezagutza praktikoa nahikoa egongo dela, eta horrek aukera emango duela langile horien jardunean genero-ikuspegia modu eraginkorrean txertatzeko. Horretarako, erakundeek behar diren prestakuntza-planak sortu eta beteaz behar dituzte, kontuan izanda emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean zer gaitasun behar den lanpostu-tipologia bakoitzerako. Gainera, kargu publikoetan daudenentzako prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduerak egin beharko dituzte.